



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 1a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00006. Interpelazioa, Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen jarraipenari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/MOC-00030. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hitzarmen Ekonomikoko Koordinazio Batzorderako deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizitdoikuntza adosteko. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00027. Erabakia, zeinaren bidez deliberatzen baita babes ematea Igari-Bidankoze-Erronkari kontzentrazio-tokian (Nafarroa) laneko nahiz giza esklabotzako baldintzak, errepresioa eta zigorra pairatu zituzten pertsonen senitartekoek aurkeztutako kereilari. Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (6. or.).
- 11-24/DEC-00009. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).
- 11-24/DEC-00010. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Valentiako sutean hil diren pertsonetikiko, haien familiekiko eta hurbilekoekiko solidaritatea azaltzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00018. Galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa. Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetzea (8. or.).
- 11-24/POR-00072. Galdera, ikastetxe publikoetan bi urtekoen ikasgelak sortzeko planari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00090. Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00093. Galdera, alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00094. Galdera, zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00095. Galdera, Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueri buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00096. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00097. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00098. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00099. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakitekoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00100. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00101. Galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00102. Galdera, Kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaren sendotzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00103. Galdera, Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espedituari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00104. Galdera, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00105. Galdera, Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/PES-00106. Galdera, Nafarroako Gobernu departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakitekoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
- 11-24/PES-00107. Galdera, jakitekoa ea zergatik geratu ziren 25 pertsona ostatura sartu ezinik 2024ko otsailaren 20tik 21erako gauean. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez akats material bat zuzentzen baitu 2024rako plantilla organikoan (22. or.).
- Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira antzintasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak (23. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00006. Interpelazioa, Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen jarraipenari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen jarraipenari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea 2024an amaituko denez gero, egokia da plan horren betetze-mailari buruz eztabaidatzen hasia eta IV. planerako ezarri beharreko erronka nagusiak mahai gainean jartzen hasia.

Parlamentu honek eta gizarte-entitateek 2019an sinatutako Pobreziaren eta Desberdineriaren aurkako Nafarroako Itunaren helburuetako bat zen Parlamentuak Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen betetzearen jarraipena egitea. Halaber, betetze horren adierazle gisa jasotzen zuen urtean behin interpelazio bat egitea Parlamentuaren Osoko Bilkuran.

Hortaz, Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen jarraipenari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/MOC-00030. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Hitzarmen Ekonomikoko Koordinazio Batzorderako deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizit-doikuntza adosteko

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Hitzarmen Ekonomikoko Koordinazio Batzorderako deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizit-doikuntza adosteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

“2025ean, autonomiek amildegi fiskal bat bizi-ko dute: diru-sarrera gutxiago eta doikuntza gehiago: Ogasunak oreka exijitzen die”; hori zen duela egun batzuk estatuko egunkari batek erabilitako izenburua Estatuko Gobernuak defizit publiko % 3tik behera murrizteko hartutako konpromisoa eusteari dagokionez, joan den apirilean Europako Batzordera bidali zuen txostenean adierazi zuen bezala, egonkortasun-programaren eguneratzearen barruan. Estatuak aurreikusten du % 3ko muga jada 2024an betetzea, eta hori

lortuz gero, defizitari buruzko Europako egonkortasun-arauak beteko lituzke.

Hori guztia, joan den astean Senatuan, Alderdi Popularraren gehiengoz, horiek atzera bota ziren arren. Beraz, erregelamenduzko bideak behartzen du Ministroen Kontseiluak berriz ere onestera – dagoeneko egin du – eta izapide parlamentarioa berriro egitera.

Autonomia-erkidegoekin egindako Zerga Politikarako Kontseiluaren azken bileran, Ogasunak % 3ko defizita proposatu zuen 2024an administrazio guztientzat; % 2,7koa 2025ean, eta % 2,5koa 2026an.

Autonomien kasuan, % 0,1eko helburua ezarri zen 2024rako. 2025 eta 2026rako, autonomia-erkidegoek aurrekontu-oreka bilatu beharko dute. Toki entitateentzat ere aurrekontu-oreka (% 0) erabaki zen, 2024tik 2026ra.

Begien bistakoa da, beraz, desberdina dela autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei ezarritako exijentzia eta Estatuari berari aplikatzekoa. Horrenbestez, honako ebazpen-proposamen hau planteatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailearen deialdia presaz hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako Nafarroari dagokion defizit-doikuntza adosteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premia-tzen du Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailean planteatzen dezan defizitaren doikuntza ekitatibo bat Nafarroarentzat.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Eleduna: Mikel Asiain Torres

11-24/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan, Bardeako tiro poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordean urtarilaren 26an egin berri den agerraldian, Margarita Robles ministroak Nafarroako Errege Bardeako tiro-poligonoaren jarraipena bermatu zuen. Agerraldi horretan esan zuen instalazio militar beharrezkoa eta ezinbestekoa dela. 2028ra arte, Defentsa Ministerioak 14 milioi euro ordaindu beharko dizkio urtero Nafarroako Errege Bardeako Komunitateari tiro-poligonoa alokatzeagatik.

Hala ere, instalazio militarra desegitea gaurkotasun iraunkorreko gaia da oraindik Nafarroan, bai eremu politikoan, bai gizarte zibilean, kontratua etetea eskatzen ari baitira, eta, beraz, jarduera militarra etetea.

Errege Bardea legez babestutako lurraldea da, Parke Naturala eta Biosferaren Munduko Erreserbaren figurarekin; 42.500 hektareako eremu berezia da, eta bertan estepa-habitatak daude eta

baso mediterraneoko zatiak, askotariko fauna eta flora hartzen dituztenak.

Bardeak, 1951tik aitzina, NATOk Europan duen tiro- eta bonbardaketa-poligono handiena dauka barruan, aitortua duen ingurumen-babes juridikoa gorabehera. Tiro-poligonoak 2.222 hektarea hartzen ditu, baina hegazkin militarrek, berez, aire-eremu osoa baliatzen dute berrogeita hamar kilometro baino gehiagoko erradioan.

NATOn hegazkin militarrek tiro- eta bonbardaketa-praktikak egiten dituzte aldian-aldian, eta horietan egiazko armak erabiltzen dituzte, baina oraindik ere salatzen da erabiltzen ari den munizio motari eta horrek ingurumenean eta gizakiengan izan ditzakeen bigarren mailako ondorioei buruzko informazio eta gardentasun falta.

Bestalde, gogoratu behar da tiro-poligonoa egon den urteetan istripu larriak gertatu direla, hegazkinak erori direla, bonbak galdu direla, entrenamendu-eremutik kanpoko leherketak egon direla eta hainbat pilotu hil direla.

Hamarkadetan zehar Nafarroako hainbat udalak eta Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro-poligonoa desegitera bideratutako erabakiak hartu dituzte, baina orain arte ez dute inolako emaitzarik lortu, Defentsako ministroak berriki hartutako erabakiak agerian uzten duenez. Gizarte zibilak, eta zehazki Poligonoaren Aurkako Batzarrak, hainbat hamarkada daramatzate martxak eta beste mobilizazio batzuk antolatzen eta eskatzen Nafarroako erakunde zibilak inplika daitezela Bardeako tiro-poligonoa desegin ahal izateko; aurten, hain zuzen ere, XXXIV. martxa izanen da.

Garrantzitsua da azpimarratzea kontratuaren seigarren klausulan jasota dagoela Defentsa Ministerioak aukera duela kontratua aldeakartasunez suntsiarazteko eta, beraz, jarduera amaitzeko, eta, ondorioz, instalazio militarra desegiteko.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du udal partzuerrekin eta Defentsa Ministerioarekin lan egin dezan Bardeako tiro-poligonoa desegiteko jarduketa plan bat taxutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premia-tzen du Bardeako tiro-poligonoa des-

egiteko eskaera bere egin dezan, eta ezein kasutan ez dezan berritu aipatu instalazio militarren emakida.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Bardeako tiro-poligonoa desegitearen aldeko XXXIV. martxa, Poligonoaren Aurkako Batzarrak

deitua. Beste urte batzuetan bezala, ekaineko lehen igandean izanen da.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Eleduna: Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00027. Erabakia, zeinaren bidez deliberatzen baita babesa ematea Igari-Bidankoze-Erronkariko kontzentrazio-tokian (Nafarroa) laneko nahiz giza esklabotzako baldintzak, errepresioa eta zigorra pairatu zituzten pertsonen senitartekoen aurkeztutako kereilari

MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak 2024ko otsailaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez deliberatzen baita babesa ematea Igari-Bidankoze-Erronkariko kontzentrazio-tokian (Nafarroa) laneko nahiz giza esklabotzako baldintzak, errepresioa eta zigorra pairatu zituzten pertsonen senitartekoen aurkeztutako kereilari. Hona testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere sostengua ematen dio Nafarroako Igari-Bidankoze-Erronkariko kontzentrazio-tokian giza eta lan-esklabotzako

baldintzak, errepresioa eta zigorra jasandako zenbait pertsonaren senitartekoen aurkezturiko kereilari, zeinean eskatzen baita egoki diren zigor-arloko ikerketa-eginbideei ekin dakiela, gertakari haiek gizateriaren aurkako krimen deklaratuak izan daitezen.

2.- Erabaki hau helaraztea Nafarroako Probintzia Auzitegiari eta Buenos Aires-Argentinako 1. zenbakiko Epaitegi Federalari, zeinaren titularrak, María Servini de Cubría andrea, frankismoaren krimenen aurkako "Argentinako kereila" deiturikoa izapidetzen ari baita”.

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00009. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna-rekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna-rekin, sostengua ematearren arazoa pairatzen duten pertsona eta familiei, bai eta Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldeak (GERNA) Nafarroan ordezkatzen duen elkarte-mugimenduari ere.

2. Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aldeztu ditu ekitatezko tratu baterako aldarrikapenak. Tratu horrek bermatu nahi du pertsona horiek aukera berak izan ditzaten, eta kalitatezko osasun- eta gizarte-zerbitzuetarako irispidea, gainerako herritarren antzera, horrela modua egon dadin estigmak aienatzeko, diagnostikoa ikerketa-

ren bidez hobetzeko, eta tratamendurako nahiz laguntza sozial eta instituzionalerako irispide hobea bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak bertako biztanleak premiatzen ditu bat egin dezaten Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna-ren ospakizunarekin, eta "Partekatu zure koloreak" leloa bereganatu dezaten, historiak eta esperientziak partekatuz, eta Nafarroako erkidego indartsuago eta batuago baten aldeko elkarlana eginez, zeinak eskubide eta premiei buruzko aldarrikapenak ahots solidarioago, ozenago eta argiago batekin egin ahalko baititu."

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00010. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Valentziako sutean hil diren pertsonetikiko, haien familiariekiko eta hurbilekoekiko solidaritatea azaltzen baitu

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Valentziako sutean hil diren pertsonetikiko, haien familiariekiko eta hurbilekoekiko solidaritatea azaltzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak eskertu eta estimatu egiten du su-itzaltze eta larrialdietako ekipoen herrialde osoa astindu duen gertakari horretan egin duten lana.

3. Nafarroako Parlamentuak bere sostengua helarazten die kaltetu guztiei, eta sutea sortu

zuten zergatiak argitzearen aldeko nahia adierazten du.

4. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak proposatutako ekimenarekin, eta gaur, astelehen, otsailaren 26a, 12:00etan minutu bateko isilaldia egitera deitzen du, Valentziako sutean hil diren pertsonen oroimenez."

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00018. Galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa**ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA**

2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa, Eskubide Sozialetako, Ekonomia

Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2024ko urtarrilaren 9ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/POR-00072. Galdera, ikastetxe publikoetan bi urtekoen ikasgelak sortzeko planari buruzkoa**ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, ikastetxe publikoetan bi urtekoen ikasgelak sortzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Carlos Gimeno Gurpegui hezkuntza kontseilariak Osoko bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Berriki Nafarroako Hezkuntza Departamentuak iragarri du Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3) doakoa izango dela familia guztientzat Nafarroako haur-eskolen sare publikoan 2024-2025 ikasturte-tik aurrera.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du ikastetxe publikoetan 2024-2025 ikasturte-tik aurrera bi urteko gelak sortzea erabaki duela.

Zein da ikastetxe publikoetan bi urteko gelak sortzeko plana? Nola uztartuko da plan hori 0-3ko eskaintza osoa duten haur eskolen eskaintzarekin?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaia

11-24/POR-00090. Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa ez da abian jarri ez Gobernuak iragarritako datan (2023ko azaroa), ez iragarritako bigarren datan (2024ko urtarrila). Zergatik?

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00093. Galdera, alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroan 2008tik aitzina abian den alokairuko poltsak jabe partikularrek Nasuvinsari errentarako lagatzen dizkioten pisuen programa artatzen eta kudeatzen du. Jabe horiek doan jasotzen dute aholkularitza eta bermatuta dute hilean garaiz kobratzea ezarritako errenta finkoa eta etxebizitza behar bezalako egoeran itzultzea kontratua bukatzen denean.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. Nafarroako Gobernuak eta/edo Nasuvinsak zenbat eta zer urtetan egin dituzte alokairuko poltsaren sustapena edo dibulgazioa egiteko kanpainak?

2. Zertan zeutzan alokairuko poltsaren sustapena edo dibulgazioa egiteko kanpaina horiek?

3. Zer tresna jarri dira alokairuko poltsan sartu eta hitzarmenak sinatu dituzten toki entitateen eskura eta zer prestakuntza eskaini zaie toki entitateetako langileei hitzarmen horietan jasotzen diren betekizunak eta eginkizunak bete ditzaten?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00094. Galdera, zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotuari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotua?

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00095. Galdera, Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueren buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueren buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Barne Departamentua zer ari da egiten Erriberako herrietan delituen igoera prebenitzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00096. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Etxebizitzako,

Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zein da konponbidea eta zer prozedura baliatu behar da Maristen orubean babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu ondoren?

Horrek atzerapenik ekarriko al du sustapeneren hartzaileei etxebizitzak ematean? Atzerapenik ekartzen baldin badu, noiz arte atzeratuko da etxebizitzaren entrega?

Baliogabetutako esleipenak zergatik ez ziren aurrez kendu esleipen-hartzaileen behin-behineko edo behin betiko zerrendatik?

Eskatzaileei 2023ari dagokion laukia betetzeko aukera eman zitzaion, eta gero esleipena baliogabetu zen, hain zuzen ere, lauki hori bete behar ez zelako. Zergatik gaitu zen, orduan, lauki hori?

Babestutako etxebizitzaren beste sustapen batzuetan ere gertatzen ari al da gauza bera?

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/PES-00097. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleipenerako eskabideetan 2023. urteari dagokion laukia gaitu zen, nahiz eta ez zen urte horretan halakorik bete behar. Zergatik?

Zenbat sustapenetan egin da akats hori bera?

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00098. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleipena baliogabetu izanari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleipena baliogabetu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer konponbide emanen die Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleipena baliogabetu izanak kaltetutakoei?

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00099. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakitekoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua noiz eta nola konturatu zen akatsa egin zuela Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean?

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00100. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Zer informazio eta irizpide eskatu zizkieten Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsak Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileei etxebizitza bat eskatzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00101. Galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Eskubide Sozialetako kontseilariak Gaztela-Mantxako bere homologoarekin izandako bilerari dagokionez:

Beste autonomia-erkidego batzuekiko bilera txanda baten parte da? Hala baldin bada, zer beste autonomia-erkidegorekin eta noiz aurreikusi duzu egitea? Hala baldin ez bada, zergatik hautatu da autonomien arteko koordinaziorako Gaztela Mantxa eta ez Nafarroarekin lurralde-lotura egonkorragoak dituzten beste autonomia-erkidego batzuk?

Akordiorik egin al zuen kontseilariak bilera horretan?

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00102. Galdera, Kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaren sendotzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaren sendotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Otsailaren 19an (astelehena) Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria Iruñeko alkatearekin bildu zen lankidetzaren ildoak indartzeko, bakoitza bere eskumen-esparrutik.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako hainbat alkaterekin biltzea aurreikusita al du, hala nola Tuteran, Tafalla, Lizarra, Zangoza eta abarrekoe-kin, kultura, kirol eta turismo arloko lankidetzaren ildoak indartzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Foru parlamentari Javier Trigo Oubiña

11-24/PES-00103. Galdera, Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espedienteari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sozietate Publikoen, Abalen eta Afera Ekonomikoen Ataleko buruaren 2022ko apirilaren 29ko txostenean honako hau esaten da hitzez hitz 10. orrialdean (txosten hori Instituto Navarro de Inversiones SL sozietate publikoa eratzea baimendu zuen 2022ko maiatzaren 11ko gobernu-akordioaren espedientean sartu zen):

"Badira, halere, beste alderdi negatibo batzuk ere:

1.- IGAE-Estatuko Administrazio Kontu-har-tzaitza Nagusiak Nafarroako Inbertsio Institutua-ren kontuak Nafarroako Gobernuarekin bateratu ez izanari buruzko aldeko iritzirik eman ez izana, horrek finantza-baliabideak lortzeko ahalmen handiagoa emanen baitzion Institutuari (foru-erkide-goarena kaltetuko ez lukeen zorpetzearen bidez), Nafarroaren ekonomiaren transformaziorako, babeserako eta garapenerako benetako tresna bihurtuta hartara.

2.- Nafarroako Inbertsio Institutuaren sorrera-rekin batera egindako jarduketak ez dira aski Nafarroako enpresa-sarearendako finantza-babesera, ekintzaitzara eta aholkularitzara bide-ratutako enpresa-sektore publikoaren eskumenen berrantolamendua borobiltzeko".

– Zeri buruz ari gara 1. puntuan "Nafarroako Inbertsio Institutuaren kontuak Nafarroako Gobernuarekin bateratu ez izanari buruzko aldeko iri-tzirik eman ez izana" esatean?

– Zeri buruz ari gara eta zer izan ziren txosten horretako 5. orrialdean aipatzen diren "aurretiaz egindako kontsultak"? Nork egin zituen kontsulta horiek, nola egin ziren, noiz egin ziren eta zein izan zen emaitza?

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00104. Galdera, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2021eko azaroan, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integralari buruzko mozio bat onetsi zen. Zein da onetsi ziren 12 puntuen egoera gaur egun?

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00105. Galdera, Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako,

Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2019ko martxoan sortutako Gizain fundazio publikoak hainbat entitate pribatutako profesionalak subrogatu zituen, askotariko lan-arauetekin. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen Gizaineko plantillaren lan-baldintzak arian-arian bateratu eta hobetzen joateko konpromisoa. Erabilitako erreferentzietako bat izan da haien lan-baldintzak parekatzen joatea Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoko (FUNDAPA) langileek dituztenekin. Hori azken urteetan egin da, baina 2024rako progresio hori etengo da eta ez da soldata-igoerarik egingen. Horrek zailago egingen du Gizaineko profesionalak FUNDAPAKoekin alderatuta duten ordainsari-arrakala ezabatzea lortzea.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut:

• Zeintzuk dira Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoizko politiko, ekonomiko edo juridikoak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00106. Galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakitekoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru Komunitateak, Nafarroako Gobernuko departamenturen baten eta/edo edozein enpresa publikoren bidez, izan al du kontratu-harremanik honako enpresa hauetakoren batekin? Hala izan bada, adierazi zer kontratu adjudikatu ziren eta zein datatan.

– Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas S.L.

– Proyectos Independientes GEMS II S.L.

– Duda Razonable S.L.

– Bussiness City S.L.

– Grupo Aurum Inversiones S.L.

– DeLuxe Fortune S.L.

– Logística Comercial Montelimar S.L.

– Future Factory S.L.

– Brama Capital S.L.

– World Magic In the Village S.L.

– MTM 180 Capital S.L.

– Erromar Soluciones Digitales S.L.

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00107. Galdera, jakitekoa ea zergatik geratu ziren 25 pertsona ostatura sartu ezinik 2024ko otsailaren 20tik 21erako gauean

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, jakitekoa ea zergatik geratu ziren 25 pertsona ostatura sartu ezinik 2024ko otsailaren 20tik 21erako gauean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Otsailaren 22an, osteguna, prentsak jaso zuen otsailaren 20tik 21erako gauean 25 pertsona gelditu zirela Iruñeko González Tablas kaleko ostatu-tik kanpo, bai eta aste horretan berean egoera bertsua errepikatu zela ere.

Zergatik gelditu ziren 25 pertsona ostatura sartu ezinik?

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez akats material bat zuzentzen baitu 2024rako plantilla organikoan

Kontuen Ganberako lehendakariaren 31. ebazpenaren bidez –2024ko otsailaren 13koa–, 2024rako plantilla organikoa eta 2023ko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda onetsi ziren.

Ohartuta akats material bat dagoela ebazpen horren 1. eranskinean –Kontuen Ganberaren 2024rako plantilla organikoan–, akats hori zuzendu beharra dago, Administrazio Publikoen Admi-

nistrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Horrenbestez, lehendakaria naizen aldetik esleiturik dauzkadan ahalmenak baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehena. – Kontuen Ganberaren 2024rako plantilla organikoaren 1. eranskineko honako akats material hau zuzentzea:

Honako hau esan ordez:

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa
Administratzailea	1	C	F	C1	X	55	74,50	12	

Honako hau esan behar du:

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa
Administratzailea	1	C	F		X	55	74,50	12	

Bigarrena. – Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 23an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira antzinatasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak

Abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontuen Ganberak eskumen osoa du bere gobernuari, barne araudiari eta bere zerbitzuko langileei dagokien guztiaren gainean. Foru lege horretan aurreikusi gabeko guztian, berriz, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aplikatuko da, estatutu horretako seigarren xedapen gehigarrian ezartzen denari jarraikiz.

Nafarroako Parlamentuak 2024ko urtarrilaren 29an aldatu du bere zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko erregelamendua, pertsona bakoitzaren antzinatasunaren arabera sortzen diren opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak izateko eskubidea jasotzeko bertan.

Eskubide hori Kontuen Ganberan aplikatu ahal izateko, gure erakundearen funtzionamenduaren eta antolamenduaren berezitasunetara egokitu behar da arau hori, eta, hortaz, horretarako eman beharreko arauak eman behar dira.

Kontuen Ganberako idazkari nagusiaren txostena eta gai horri buruzko ebazpen-proposamena ikusita, Langileen Batzordearekin bat, lehendakaria naizen aldetik dauzkadan eskumenak baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. – Nafarroako Kontuen Ganberako langileei modu honetan aplikatuko zaie Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduen 4. artikuluan eta 38. artikuluan ezarritakoa:

– Egun gehigarriak izateko eskubidea sortzea: Egun gehigarri bat izateko eskubidea eragiten

duten antzinatasun-aldietako bakoitza betetzean sortzen da eskubidea. Egun horretatik aitzina, kudeaketa-sisteman ikus daitekeen oporren kuantak egun bat gehiago jaso beharko du –edo lortzen den antzinatasunaren arabera dagozkionak–. Irizpide hori bera aplikatuko zaie antzinatasunaren arabera sortzen diren norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriei.

– Proporzionalki aplikatzea, baldin eta zerbitzu-egoerak urte natural osoa hartzen ez badu. 27 opor-egun eta norberaren aferetarako 3 egun izateko eskubidearekin gertatzen den bezala, sortzen diren egun (edo ordu) gehigarriak zerbitzuan eman den denborarekiko proporzionalak izanen dira, baldin eta denbora hori urte natural bat baino laburragoa bada.

Bigarrena. – Erakundearen funtzionamendua- ren berezitasunak direla-eta, Kontuen Ganberako langileei ez zaie aplikatuko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren 5. artikuluan 4. paragrafoan ezarritakoa.

Hirugarrena. – Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ere ez zaie aplikatuko.

Laugarrena. – Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bosgarrena. – Ebazpen honek argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Iruñean, 2024ko otsailaren 23an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

